

AUTOEBALUAKETA II ATALA

Aukeratu erantzun zuzena. Galdera bakoitzean aukera zuzen bakarra dago.

1. **12 asteko haurdunaldian dagoen emakumea odontologoaren kontsultara doa. Farmakoen preskripzioa egin baino lehen, odontologoak gogoratu behar ditu haurdunaldian gerta daitezkeen aldaketa farmakozinetiko eta farmakodinamikoak, hauek farmakoen agindua baldintzatu ditzaketelako. Zer izan behar du kontuan?:**
 - a. Farmakoen erabilpenak egoera honetan ez du eskatzen aldaketa berezirik
 - b. Orokorrean ohikoak baino dosi txikiagoak behar dira farmakoen metabolismoa gutxituta dagoelako haurdunaldian
 - c. Aho-bidetik emandako farmakoen xurgapenak aldaketa klinikoki esanguratsuak pairatzen ditu egoera honetan
 - d. Aldaketa nabarmenenak azken hiruilabetean gertatzen dira, beraz karga dosi eta mantenezko dosi handiagoak behar dira garai honetan
 - e. Aurreko guztiak hartu behar ditu kontuan

2. **Farmakoak haurdunaldian erabiltzeko FDA-ren sailkapenari buruzko baieztapen hauen artean, aukera okerra dena:**
 - a. Doxiziklina D mailakoa da
 - b. X mailako farmako guztiak kontraindikatuak daude haurdunaldian
 - c. C mailako farmakoek ez dute arrisku teratogenorik laborategiko animalietan
 - d. A mailako farmakoak haurdunaldiaren edozein alditan erabili daitezke
 - e. Artikaina C mailakoa da

3. **Haurdunaldiaren 20. astean dagoen emakume baten aho infekzio bakterianoa tratatu behar du odontologoak. Farmako hauen artean, zein ez dago indikatua paziente honetan?**
 - a. Metronidazol
 - b. Klindamizina
 - c. Amoxizilina
 - d. Espiramizina
 - e. Aurreko farmako guztiak kontraindikatuak daude haurdunaldian

4. **Zertarako dira erabilgarriak Beers-en irizpideak?**
 - a. Betetze terapeutikoa ezagutzeko
 - b. Pertsona nagusietan tratamendu ez egokiak antzemateko
 - c. Farmakoen erreakzio kaltegarriak antzemateko



- d. Farmakoen arteko elkarrekintzak antzemateko eta saihesteko
 - e. Paziente nagusien arazo kognitiboak balioztatzeko
- 5. Zahartzaroan medikamentuen aginduari buruzko baieztapen okerra aukeratu:**
- a. Farmakoen bioerabilgarritasuna nagusietan ez da aldatzen
 - b. Farmako liposolugarrien banaketa handiagoa da persona adinekoetan
 - c. Ez daude aldaketa farmakodinamikorik
 - d. Zahartzaroan elkarrekintza arriskua handiagoa da
 - e. Orokorrean, ohiko dosiekin pertsona zaharretan farmakoen erantzuna intentsitate handiagokoa da
- 6. Hautzaroan farmakoen erantzuna baldintzatzen duten faktore farmakozinetikoei buruz:**
- a. Farmako batzuren aho-bideko xurgapena handituta dago bizitzaren lehen bi asteetan zehar
 - b. Farmakoen frakzio askea txikiagoa da jaioberrian helduan baino
 - c. Jaioberriek helduek baino ahalmen metaboliko askoz handiagoa dute
 - d. Hurrek farmakoak iraitzeko ahalmena murriztua dute
 - e. Aurreko guztiak okerrak dira
- 7. Medikamendu bat haurrentzat preskribatzeko orduan, ez da zuzena:**
- a. Gomedagarria da haurrentzat irekitzeko zailak diren ontziak erabiltzea
 - b. Betetze terapeutikoa errazteko posologia kontuan izan behar da
 - c. Ahal denean, forma farmazeutiko likidoak aukeratu behar dira
 - d. Dosiak kalkulatu dira kontuan izanda haurra pisu gutxiko heldua dela.
 - e. Haurrak goitikak baditu, uzki bidea erabil ahal izango da
- 8. "off-label" farmakoei buruz:**
- a. Oraindik onartuak izan ez diren eragile terapeutikoak dira
 - b. Pediatrian erabilgarritasunari buruzko informaziorik ez duten farmakoak erabiltzean datza
 - c. Erabilpen pediatrikoa onartua duten farmakoak erabiltzean datza baina fitxa teknikoan agertzen ez diren baldintza batzuetan
 - d. Atzerriko medikamentuak erabiltzea da
 - e. Farmako biobaliokideak erabiltzea da



- 9. Giltzurrun gutxiegitasuna duen pazientean farmakoak preskribatzerakoan :**
- Tarte terapeutiko estudun farmakoentzat ez da beharrezkoa dosiak berregokitzea
 - Hiperalbuminemiaren ondorioz farmakoen frakzio askea gutxituko dela kontuan izan behar da
 - AIEEak eta aminoglukosidoak saihestu behar dira
 - Toxikotasun arriskua handiagoa da
 - Zuzenak dira c eta d aukerak

- 10. Inmunoeskasiadun pazientean:**
- Farmakoen erantzun terapeutikoa handitua ager daiteke
 - Tronbosi arrisku handiagoa dute
 - Ultzeren agerpena handiagoa da
 - Beti egin behar da profilaxi antimikrobiarra
 - Ez da beharrezkoa hortz-xaflaren kontrola

